

## **2019-04-30eko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2019ko apirilaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### **LEHENENGO GAIA**

**AURREKO AKTAK ONARTZEA (2019-02-26; 2019-03-26).**

Udalbatzak, aho batez, 2019ko otsailak 26ko eta martxoak 26ko bileren aktak onartu ditu.

### **BIGARREN GAIA**

**ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/52 DEKRETUTIK 2019/81 DEKRETURA BITARTEAN.**

Alkateak 2019/52 dekretutik 2019/81 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **HIRUGARREN GAIA**

#### **2018KO IRURAKO UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ALKATEAREN DEKRETUA JAKINARAZPENA.**

Idazkariak adierazten du espedientea ez dagoela osatuta eta udalbatzak erabaki du mahaiaren gainean uztea, aho batez.

#### **LAUGARREN GAIA**

#### **IRURAKO UDALEKO 2019KO AURREKONTUAREN 1º. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak adierazten du ez dagoela proposamenik.

#### **BOSGARREN GAIA**

#### **TOLOMENDIKO ELKARTEAREN 2019KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak, Tolomendik, 2019ko apirilaren 4ean ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2019. urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuen.

Banaketaren ondorioz, Irurako Udalari 3.319,32 € ordaintzea dagokio, Elkartearen funtzionamendurako.

Hori ikusita udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

#### **ERABAKIA**

1º.- 3.319,32 euroko ekarpena onartzea.

2º.- Ekarpen hori zuzenean ordaintzea.

#### **SEIGARREN GAIA**

#### **LOATZO MANKOMUNITATEAREN 2019KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateak Loatzo Mankomunitatearen 2019ko aurrekontuaren datuak adierazi ditu eta zenbat dagokion Irurako Udalari ordaintzea ekarpen bezala. Amaitzeko adierazi du, nahiz eta ekarpena oraindik ez den onartua izan, bere proposamena onartzea dela.

Eta hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

## ERABAKIA:

1º.- 2019. ekitaldiko Loatzo Mankomunitateari 48.155,96 euroko ekarpena onartzea.

2º.- Zuzenean ordaintzea.

## ZAZPIGARREN GAIA

### **MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREN EGOERAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gipuzkoan mendekotasun prestazioen inguruan indarrean dagoen araudiak ezartzen du Foru Aldundiak udalen bitartez egingo dituela prestazioen titularrak jasotako zainketen kalitatearen aldiak aldiko jarraipenak, betiere udalen ordezkariarekin nahikoa izango den finantzaketa aurretik adostua.

2018ko abenduan Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak kudeaketa emakidarako proposamen bat ontzat eman zuen, finantzaketa barne.

Joan den otsailaren 12an Diputatuen Foru Kontseiluak horrela egitea nahi luketen Udalekin sinatu beharreko hitzarmen eredia onartu zuen.

Hori ikusita, 5 boto alde (PNV/EAJ) eta 4 abstentzio (EH Bildu). Udalbatzak hau onartu du:

## ERABAKIA

1º.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

2º.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea, Irurako Udaleko Alkatea denari, baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

### Eztabaida:

Olaia Nieto zinegotziak (EH Bildu) adierazi du, bere taldea abstenitu egin dela, konpetentzia Diputaziokoa delako. Egia dela udaleko teknikariak egiten duela orain lana hau, baina ez dela bere konpetentzia eta bera ez zegoela erabat ados hitzarmen honekin.

**ZORTZIGARREN GAIA**  
**IRURAKO ZAHARREN BILTOKIKO ETA IRURAKO UDALAREN ARTEAN**  
**HITZARMENA, JARDUEREN PROGRAMAK GAUZATZEKO**  
**HELBURUAREKIN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 2019ko apirilaren 3an eginiko bileran, onartu zuen Irurako Zaharren Biltokia Elkartearekin hitzarmena 2019tik 2022 bitartekoa. Bere helburua da, alde batetik, 4.000 euroko diru laguntza ematea bere jarduerak gauzatzeko eta beste aldetik Share Kaleko 7 zenbakiko udal lokala dohain lagatzea bere jarduerak burutzeko.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez, hau onartu du:

**ERABAKIA**

1º.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

2º.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea, Irurako Udaleko Alkatea denari, baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

**BEDERATZIGARREN GAIA**  
**HERRIAN IZANDAKO EMAKUME PILOTARI PROFESIONALEN BERRIA**  
**EMATEKO DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Raketistak Lehen eta Orain Kultur Kirol Elkarteak raketisten gaineko datuak jaso ditu lau urtez. Irurako herriko raketisten datu babesa sortzeko eta osatzeko 600 euroko diru laguntza eskaera egiten dute.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, onartu du diru laguntza ematea eta zuzenean ordaintzea.

**HAMARGARREN GAIA**  
**2019KO IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK**  
**ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria Batzordeak, 2019ko martxoaren 12an egindako bileran, euskara arloko hainbat diru laguntza onartu zituen.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, onartu du diru laguntza hauek ematea eta zuzenean ordaintzea:

- Ibilaldia: 160 €
- Araba Euskaraz: 160 €
- Kilometroak: 160 €
- Nafarroa Oinez: 260 €
- Herri Urrats: 260 €

## **HAMAIKAGARREN GAIA**

### **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria Batzordeak, 2019ko martxoaren 12an egindako bileran, euskara arloko hainbat diru laguntza onartu zituen.

Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosaldeko euskara elkarte eta eskualdeko 28 herrietan ari da lanean euskararen normalizaziorantz, eta Irura ere horretan ari da. Galtzaundik egiten duen lana aurrera eramateko baliabide ekonomikoak behar direnez, Irurako Udalari diru laguntza eskaera egiten dio.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, 1.000 euroko diru laguntza ematea eta zuzenean ordaintzea onartu du.

## **HAMABIGARREN GAIA**

### **HARITUZ BERTSOZALEEN ELKARTEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria Batzordeak, 2019ko martxoaren 12an egindako bileran, euskara arloko hainbat diru laguntza onartu zituen.

Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneak eskualdean bertsolaritza eragiteko hiru lan ildoak landuko ditu: transmisioa, sustapena eta bilketa eta hedapena.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

## **ERABAKIA**

1º.- 2.000 euroko diru laguntza ematea 2019ko egitasmoa sustatzeko eta horretarako elkarte honekin hitzarmena sinatzea.

2º.-Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea, Irurako Udaleko Alkatea denari, baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

## **HAMAHIRUGARREN GAIA**

### **TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAREN (ATARIA) DIRU LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria Batzordeak, 2019ko martxoaren 12an egindako bileran, euskara arloko hainbat diru laguntza onartu zituen.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak, S.M.- elkartearen herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzea du helburu: Tolosaldeko Ataria prentsa, Ataria Irratia eta [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus).

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA:

1º.- 6.500 euroko diru laguntza ematea 2019ko egitasmoa sustatzeko eta horretarako elkarte honekin hitzarmena sinatzea.

2º.-Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea, Irurako Udaleko Alkatea denari, baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

**HAMALAU GARREN GAIA**

**TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK (28 KANALA) DIRU LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria Batzordeak, 2019ko martxoaren 12an egindako bileran, euskara arloko hainbat laguntza onartu zituen.

28 kanala elkartearen helburua Tolosaldeko bailarako telebista euskaraz sustatzea da.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA:

1º.- 2.500 euroko diru laguntza ematea 2019ko egitasmoa sustatzeko eta horretarako elkarte honekin hitzarmena sinatzea.

2º.-Ana Jesús Leunda Gurruchaga anderea, Irurako Udaleko Alkatea denari, baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

**HAMABOST GARREN GAIA**

**TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMOA ONARTZEKO ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO MOZIOA ONARTZEKO, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da:

**MOZIOA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMOA ONARTZEKO ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO**

Emakumeen etxeak eta txokoak Mugimendu Feministaren erreibindikazio historiko izan dira eta dira. Eskaera hori 80ko hamarkadan hasi zen gauzatzen Estatuan, hain zuzen ere, Zaragozako eta Kataluniako ekipamenduak sortu zirenean. Euskal Herrian, berriz, 2003koak dira lehen ekimenak, emakumeen etxeak jarri zirenean Ermuan aurrena eta Arrasaten ondoren, eta 2004an ireki zuten Eibarren.

2010etik aurrera etorriko ziren besteak: Gipuzkoan, Donostian, Hernanin eta Azpeitian; Bizkaian, Basaurin, Ondarroan eta Durangon; eta Nafarroan, Iruñean. Denek helburu bera dute, baina bakoitzak bere egiturak, kudeatzeko modua eta funtzionamendua ditu, udalerrri bakoitzaren errealitate eta beharretara egokituta. Aipatzekoak dira Donostiako eta Ondarroako etxeak, kudeatzen baitituzte Udalaren, erakunde feministen eta emakumeen ehun asoziatiboaren artean.

Etxe hauek sortu zituzten politika feministak bultzatzeko eta emakumeen erreferente izateko. Leku hauek elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko dira, eta, era berean, abiapuntu dira emakumeek parte har dezaten udalerriko politikan eta bizitzan. Era askotako gaiak izaten dituzte aztergai eta herriko kolektibo feministen eta emakume-taldeen kezka eta jakin-mina jasotzen dira, besteak beste, teoria, literatura edo genealogia feminista, indarkeria matxista, autodefentsa feminista, sexualitatea, abortatzeko eskubidea, emakumeen arteko ahizpatasuna; aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da; liburutegi espezializatuak antolatzen dira...

### **Aurrekariak**

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, iazko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea eta errealitate bihurtzeko plangintza edo bide-orria lantzea, eta, azkenik, herriko nahiz eskualdeko eragile eta herritarrek era honetako ekipamenduaren beharraz sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina garatzea.

Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Urte horretan, era berean, Emakumeen Etxearen lan-talde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Udal gobernuak, oposizioko zinegotziak eta emakumeen ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, elkarlanean proiektua kokatzea eta minimo batzuk definitzea eta adostea. Horrela, hainbat gai tratatu dira: etxearen arazoak, definizioa, lan-ildoak, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada feministako ordezkariak, emakumeen taldekoak, emakume norbanakoak eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Parte-hartze prozesua Elhuyar Aholkularitzako teknikariek garatu da.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailtik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume inguruk hartu dute parte.

Horiek horrela, Irurako Udaleko udal taldeek, aho batez, Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo konpromisoak hartzea udal esparruan:

- 1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.
- 2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.
- 3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).
- 4.- Baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

### **HAMASEIGARREN GAIA**

#### **EUSKAL FONDOAREN 2019RAKO DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal hau Euskal Fondoa Elkartearen kide da eta 2019. egitasmorako diru laguntzak onartu nahi ditu.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

#### **ERABAKIA:**

1º.- Diru laguntza hauek onartzea eta ordaintzea:

- a) P 305K: Ur edangarriaren sistema handitzea, San Benito, Los Encuentros, El Cortijo eta Liriosen. San Francisco Menendez: 1.500 €
- b) P 307K: Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako garraio azpiegiturari laguntzea: prestakuntza, suntsikorrak eta ordezekoak: 1.000 €

2º.- Eta gainera horretaz gain Saharako umeentzako oporrak bakean egitasmoari: 500 € ematea.

### **HAMAZAZPIGARREN GAIA**

#### **2020KO TOKIKO JAI OFIZIALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Urtero bezala, 2020 urterako Irurako tokiko Jai Ofiziala onartu behar da.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

#### **ERABAKIA**

1º.- 2020 urterako tokiko Jai Ofiziala irailaren 29, San Migel eguna, izendatzea.

2º.-Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailari.



## **HEMEZORTZIGARREN GAIA**

### **IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

Ez dago ezer.

## **HEMERETZIGARREN GAIA**

### **GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:**

- a) Ainhoa Ugalde zinegotziak (EH Bildu) adierazi du, bi diru laguntza berandu ordaindu direla.  
Idazkariak erantzun du diru laguntza batzuk zurrizko denbora pasatzen dela: dokumentazio ekartzea, errebisatzea, beste dokumentu batzuk eskatzea berriz, ...
- b) Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak (EH Bildu) galdetu du nola dagoen Urdaitegia enpresaren zarataren arazoa.  
Alkateak erantzun du joan den astean enpresa batek azterketa teknikoa egin zuela eta datorren astean etorriko dela Udalera emaitzak azaltzeko.
- c) Olaia Nieto zinegotziak (EH Bildu) adierazi du azken lau urteko balorazioa egin nahi duela: udaleko gobernutik ez dela elkarrizketarik izan ez herritarrekin ezta oposizioekin ere, eta gobernutik Alkateak bakarrik hitz egin duela eta beste kideak isilik geratu direla. Alkateak bere adierazpenak beti irakurri egin dituela, bere naturaltasunari margenik utzi gabe eta ezta oposizioari ere.  
Berak saiatu direla beren lana egiten: kontrol lana eta herritarrei informatzen. Lan gogor horrek bere emaitzak eman dituela. Adibidez, Goiko Parkea lehen estaltzea hobea zela onartu dutela, EH Bildu programan agertzen zen bezala, aurreko lege aldiaren martxan jarritako proiektuak jarraitu direla.  
Datorren legegintzarako hau proposatzen dute: normaltasuna berreskuratzea Iruran, herritarrekin hitz egitea berriz, herri eta auzo batzarrak egitera ausartzea, oposizioarekin negoziatzera ausartzea, herritarren hoberena egitera ausartzea eta ez Tolosatik edo Donostiatik esan dutenaren menpe egotea. Eta gogoratuz, PNV hauteskunde programan jartzen zuela, Iruran bizi kalitatea hobetuko dituen proiektuen informazio zabala emango zela eta herritarrekin partaidetza zabala eta eztabaida bilatuko zirela eta hori ez da lortu ez herritarrekin ez oposizioekin.  
Alkateak adierazi du, egun batzuk barru oraingo legegintza amaituko dela eta posible dela azken udalbatza izatea, nahiz eta beste bat ospatu behar agian. Lau urte izan direla lanean Iruraren alde eta herritarren nahia betetzen, horrela nahi izan zutelako, arto eta pozik dagoela egindako

lanarekin. Eskerrak eman nahi dizkiela, idazkari kontu-hartzaileari eta udaleko departamentu guztietako tekniko eta langileei, beraien lana eta laguntzari esker, hainbat proiektu eta lan aurrera eman direlako. Eta nola ez eskerrak eman hemen dauden zinegotziei egindako lanagatik, eskerrak guztiei eta ongi izan.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "[www.irura.eus](http://www.irura.eus)" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA